# panpanoZIRI

2013ko abendua

aresoko aldizkaria



# IRAGANA EZAGUTUZ ETORKIZUNA SORTZEN

- ARESOREN ETORKIZUNA
- ARESOKO ETXEEN IZENAK
- ARESO, HERRI KOMUNIKATUA
- JUAN BELAUNZARAN ETA KARMEN ONSALORI ELKARRIZKETA
- ETA GEHIAGO...

# aurkibidea

## ZENBAKI HONETAN





AURKEZPENA 3

JUAN BELAUNZARAN ETA KARMEN ONSALORI ELKARRIZKETA 4-6

5 URTE UEMAN 7

GARAI BATEKO ARESO 8-9

APUSTUAK ARESON 10-11

ARESOKO ONDAREA 12-15

ARESO, HERRI KOMUNIKATUA 16-17

ARESOKO ETXEEN IZENAK 18-23

ARESOREN ETORKIZUNA 24-25

DENBORAPASAK 26-27

ARESOARRAK SETOSOAK OMEN 28



Gurekin harremanetan jartzeko:
**laga@iparmank.org**

Diseinu eta maketazioa:
**astidiseinua.com**

Aldizkaria idatzi eta osatu duen lantaldea:
**Ana Goñi, Jaione Olazabal, Itxaso Onsalo, Juana Mari Saizar, Pello Belauntzaran, Uxue Goikoetxea eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.**

Argazkiak:
**Ana Goñi, Ane Baraibar, Eden Algero, Igone Goikoetxea, Jaione Olazabal, Juana Mari Saizar, Pello Belauntzaran, Toribio Gereño, Uxue Goikoetxea, Zuriñe Goikoetxea eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua.**

euskara ZERBITZUA
ARANO, ARESO, GOIZUETA eta LEITZA



**1897-10-31 Astomela errekako zubiaren gainean jendea, Peune ezkerretara ikusten da.**

Panpanoziriren bigarren zenbakia duzu eskuetan. 2011n egin genuen lehendabizikoa, herritarrek pozik hartu zutela ikusi eta horrek segida beharko zuela erabaki genuen.

Aldizkariaren azaleko tituluak honela dio: "Iragana ezagutuz etorkizuna sortzen". Esaldi horrek nahikoa ongi biltzen du aldizkariaren edukia eta horren atzean dagoen gogoa. Izan ere, iraganari dezente begiratu diogu zenbaki honetan, herriaren iragan hori interesgarria eta ezagutu beharrekoa iruditzen zaigulako, baina, hain zuzen ere, herriaren etorkizunak kezkatzen gaituelako eta herriaren etorkizuna interesatzen zaigulako jarri gara atzera begira. Ez dago etorkizuna sortzerik iragana ezagutu gabe.

Eta zer da atzera begiratzen jarri eta ikusi duguna? Zer da aldizkarirako jaso duguna? Bada, onena zerorrek ikustea izanen da, baina zertxobait aurreratuko dizugu: Aresoko okindegiari buruz Karmeni eta Juani egindako elkarrizketa bat ikusiko duzu, herriko argazki zaharrak, Aresoko ondarea iruditan, garai bateko apustuen inguruko jakingarri batzuk, herriko etxeen izenei buruzko erreportajea, eta Aresok izan dituen komunikatzeko bideei buruzko lan bat. Horiek, esan dezagun, atzera begiratzen dutenak.

Gaurkoari eta etorkizunari ere tartetxo bat egin nahi genien, ordea, eta horretarako UEMAren inguruko atal bat idatzi dugu eta aresoarrei herriaren etorkizunaz galdetu diegu. Horiez gain, denbora-pasak, —horiek ere gure herriarekin lotuta—, eta, kontrazalean, herritarrei egindako galdera "bitxi" bat eta jasotako erantzunak.

Onena, esan bezala, aldizkariak dakarrena zerorrek dastatzea eta gozatzea. On egin!



# Juan eta Karmen

## ARESOKO OGIA, IRAGANEKO OROITZAPENAK...

Martaxeneko egurrezko labearen azken labekadarekin batera, 2011ko uztailaren 31n hartu zuten merezitako erretiroa Juan Belaunzaran eta Karmen Onsalok, agur esanaz 32 urtez ogibide izan zuten okinaren lanari.

Poliki-poliki eta denborarekin, bizitza berri bat hasteari zioten beldurra atzean utzi eta egun ez da zaila Juan eta Karmen udan nahiz neguan, baratzean, etxeko lanetan edo eguraldi ona zein txarra bidelagun dutela, beraien eguneroko bueltatxoa egiten eta gustuko zereginetan ikustea. Bueltatxo horietako baten ostean eskaini ziguten ondorengo elkarrizketa hau.

**Aspaldiko okindegia zen zuena, noiztik zegoen zabalik?**
1940. urtean ireki zuten nire gurasoek. Gerratik etorri zirenean zerbaitetan hasi beharko zutela pentsatu zuten eta lan honi ekin zioten. Aurrena labe txiki batekin hasi ziren eta handik 15 urtera beste labe berri bat jarri zuten, handiagoa.

**Nolakoa izan zen hastapena beraientzat?**
Lehen "razionamendue" izaten zen, herri bakoitzari horrenbeste kilo irin tokatzen zitzaion eta hortik pasatzen bazinen ez zizuten irin gehiago saltzen, nahiz eta dirua izan. Beraz, okinak ahal zuen bezala moldatu behar izaten zuen, eta irina kontrabandoan ere tarteka ekarri ohi zuen. Garai hartan ez zen orain bezala ogia erosi eta segituan ordaintzen, ez jendeak ordaindu nahi ez zuelako baizik eta ezin izaten zutelako. Diru pixka bat zuenak hilean behin ordaintzen zituen hilabeteko ogiak, baina ezin zenean, jendeak urte bukaeran ordaintzen zuen, etxeko txekorren bat saltzean.

**Garai hartako bitxikeriaren bat gogoratzen duzu, Karmen?**
Batzuetaz gogoratzen naiz. Garai hartan ogia Gorritira astoarekin eramaten zuten. Bestalde, denbora luzez igandero, Ibarrako gizon batek 100 kg ogi baino gehiago erosten zituen Ibarran bertan saltzeko. Ibarran saltzeko behar ziren ogiez gain eta herrian behar zirenak egiteko, larunbateko arratsaldeko 7etan lanean hasten

ziren, nik ere behin baino gehiagotan laguntzen nien.

**Betidanik jakin al zenuen, Karmen, okindegiarekin jarraituko zenuela? Noiz hartu zenuten zuek erreleboa?**
**Karmen:** Egia esan ez nuen inoiz pentsatu ofizio honekin jarraituko nuenik, izan ere, eguneroko martxan ikusten nuen lan gogorra zela.
**Juan:** Ni garai hartan igeltsero lanetan aritzen nintzen eta gero Karmenekin okindegia probatzea erabaki nuen. Igeltseroaren lana ere ez delako batere erraza, neguan hotza eta udan bero izugarriarekin hor aritu behar izaten da lanean. Aldaketa nabaritu nuen, baina lan guztiek dituzte beren alde onak eta txarrak.

**Nolakoa zen zuen eguneroko martxa okindegian?**
Goizeko 3etan jaiki eta okindegira iritsi orduko ogiaren masa egiten hasten ginen. Labea piztu, berotu eta trapu busti batekin labea garbitzen genuen ondoren ogia bertan sartu ahal izateko. Bitartean, masa harrotzen joaten zen, pisatu, torneatu eta labean sartzen genuen. Aurreneko labekadak behar izaten zuen denbora gehien, ogiaren prozesua hasten zenetik bukatu arte, hiru ordu gutxi gorabehera. Bigarrenak bi ordu eta erdirekin aski zuen, labea beroa egoten zelako eta ogiaren masa harrotzen joaten zelako.

Beraien eguneroko lana, ordea, ez zen hor amaitzen, behin ogia eginda, Juan ogiaren banaketa egitera joaten zen Leitzara eta Karmen okindegian geratzen zen ogia saltzen. Arratsaldeetan ere zeregina bazuten, egurra prestatzen aritzen ziren, moztu eta estalpean sartzen hurrengo egunerako, prest.

**Egunean, zenbat labekada egiten zenituzten?**
Aste egunetan bi labekada egiten genituen, asteburuetan hiru eta jai egun berezietan, berriz, lau. Lau labekada egin behar izaten genituen egunak, ordea, gogorrak izaten ziren, aurreko eguneko gaueko 12etan hasten ginen lanean, bi eguneko ogia egin ahal izateko, eta arratsaldeko 4etan etxeratzen ginen, txikituta.







**Ofizio honek jai egunik izaten al zuen?**
Urtean bi egunez bakarrik egiten genuen jai, Eguberri eguna eta Urte Berri eguna izaten ziren gure jai egunak. Urteko beste egun guztietan lanean aritzen ginen, baita gaixo egonda ere.

**Ogiaren emaitzan zein faktorek zuten eragina? Egur mota, irin mota, eguraldia...?**
Istorio asko ditu ogiak. Nahiz eta beti esku berdinek lan egin, intentzio bera jarri, ura, gatza eta irin kantitatea berdina izan, emaitza

ezberdina izaten zen beti. Egur kantitateak edo irina berria izateak eragina badauka, baina batez ere eguraldiak, hori da gakoa. Nahiz eta barruan tenperatura beroa izan, izotza zen egunetan masa ez zen berdin harrotzen, ogia estuagoa ateratzen zen. Hego-haizearekin, berriz, masa gehiegi harrotzen zen denbora baino lehen, baina gero hustu egiten zen lana egiteko garaian. Eta hezetasunarekin aldiz bigundu. Ikusten duzuen bezala ogiak sekretu asko ditu.

**Bezero leialak zenituzten?**
Bai. Herritarrez gain, asteburuetan kanpotik jende asko sartzen zen. Bertakoaz gain, Gipuzkoa aldetik ere asko, esaterako Berastegitik, Tolosa aldera bitarteko herritarrak, baita autobia eginez geroztik Andoain eta Donostia aldetik ere**.** Uste ez genezakeen toki askotatik etortzen ziren, ogi honen berri baitzuten.

**Zuen ogia beste zerbaitetarako erabiltzeko joerarik ba al zuen jendeak?**
Extremadurako jatorria zutenak ogi bila etortzen ziren "migas de pan" egiteko eta zaharra bazen gusturago hartzen zuten. Donostiatik, berriz, 3 edo 4 kilo ogi enkargatzen zituzten "Arronizkoa bezalako tostadak" egiteko, olio eta baratxuriarekin igurtzita egiten da. Madriletik ere baratxuri zopak egiteko eskaerak izan genituen. Eta beste batzuk torrijak egiteko, gosaltzeko tostadak egiteko, edota Gabonetako eskaparateak apaintzeko erabili izan dute gure ogia. Gainera ogiaz gain jendeak irina ere kiloka erosten zuen etxean ogia eta kroketak egiteko.

**Zuen ogiak, nahiz eta ezberdina izan, konpetentziarik ba al zuen gaur egungo ogiarekin?**
Ez genuen konpetentzia gehiegi sumatu; batzuetan, hala ere, umeek nahiago izaten zuten ogi bigunagoa.

**Sekula ez zenuten pentsatu labea aprobetxatuz beste erabilera bat egitea, ogi integralak, madalenak…?**
Ez, horrek beste prozesu baten beharra eskatzen zuen eta horretan ez ginen sartu. Bientzat nahiko lan izaten genuen egunerokoarekin.

**Noiz erabaki zenuten uztea?**
Jubilatzeko garaia iritsi zen eta geroz eta nekatuago geunden, eta horrela erabaki genuen. Pena handia dugu erreleborik ez dugulako izan, gure ondorengoek ez dute jarraitu, bakoitzak bere martxa hartua baitu.

**Okindegia itxi zenetik egin al duzue ogirik etxean?**
Ez dugu egin oraindik —tristura nabari da haien hitzetan—, baina Artiedan topatu dugu gure ogiaren antzeko bat, kilokoa, labe zaharrean egina, zapore eta itxura berarekin.

**Zertan aldatu da bi urte hauetan zuen eguneroko bizitza, Juan? Zer da eskertzen duzuena eta zer faltan sumatzen duzuena?**
Aldaketa gogorra izan da, hasieran ordutegi aldaketa eta bizkarreko mina izaten nuen gorputza hainbeste urtetan gehiegi behartzeagatik.

Faltan sumatzen dugu jendearekin genuen harremana, gustura egiten baikenuen gure lana eta segituan pasatzen zitzaigun goiza. Egia ere da orain ez dugula kezkarik eta denbora gehiago dugula guretzat. Gauza gutxirekin disfrutatzen dugu, egunero egiten dugu paseoa, baratzean aritzen gara eta etxeko obra batzuk ere egin ditugu.



**Horrenbeste urtetan, ezagunen bat igaro al zen zuen okindegitik edo anekdotaren bat kontatzeko…**
Jende ospetsu asko pasa izan da gure okindegitik, lanbide askotako jendea bisitan etorri izan zaigu.

Eta bitxikeria bezala, esan dezakegu gure ogia erostera etorritako batek baino gehiagok esan izan zigula Villabona eta Ibarra aldean gure ogia zela esanez beste ogi bat saltzen ibili zirela. Jendea denetarako dago.

**Okin baten lana hitz gutxitan nola deskribatuko zenukete?**
Zaila, gogorra eta sakrifikatua. Gaur egun guk lan egiten genuen bezala aritzeko oso lan zaila da, guk lana jarraian egiten genuen, beste sistema bat zen. Orain, aldiz, ogiaren masa egiten dute, izoztu eta behar denean labean 15 minututan erretzen dute.

**Orain herriko festak beste era batera biziko dituzue, ezta?**
Lehen festak ez genituen bizitzen, lanean aritzen ginen, ogia egin eta egin eta egin. Gainera azken hamar urte hauetan festa giroa asko aldatu da, dena plazan egiten da, bazkariak, afariak, sagardo dastatzea, sardina jatea… 120 barra ogi behar izaten ziren eta horrek lan gehiago eskatzen zuen, 4 labekada. Bestalde, diru gehiago ateratzeko bidea ere bazen.

**Nola baloratzen duzue urte hauetako lana?**
Orain dagoen konpetentzia ikusita, pozik gaude horrenbeste urtean gure okindegia bizirik mantendu delako. Aipatu nahi genuke, inorekin ez dugula izan haserrerik, denekin ongi eraman izan garela. Beraz, oso kontentu gaude.

Martaxeneko labearen inguruko oroitzapenak atzean utzi eta Ixpuruko beheko suaren berotasunean egin dugun elkarrizketa amaitu dugu, Juanek bere denbora libreaz baliatuz etxean egin dituen lanak ikusiz.

# 5 URTE UEMAN
## (UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA)

Udalerri Euskaldunen Mugimendua 1988an abiatu zen, Euskal Herrian Euskarazek udaletan aurkeztutako mozioarekin batera. Orduan hasi zen hainbat udaletan euskarazko zerbitzua emateko eta euskaraz lan egiteko beharra zabaltzen. Ekimen horretatik sortu zen, 1991n, UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. 22 urte badira, beraz, erakundea osatu zenetik, eta hasierako 17 udalei beste asko elkartu zaizkie bide horretan, tartean Areso.

Gure inguruan lehendabizikoak Goizueta eta Leitza izan ziren, 1993an sartu baitziren biak Mankomunitatean. Areso duela 5 urte sartu zen, 2008an hain zuzen ere. Geroztik, Aresoko udalean euskarazko zerbitzua eman eta euskaraz lan egiteko erabakia sendotuz eta gorpuztuz joan da. Fruituak ere bistakoak dira.

Aldaketaren tamainaz ohartzeko nahikoa da duela 10 edo 15 urteko udalaren egoera eta gaur egungoa begiratzea. Izan ere, garai batean zinegotzi, alkate eta herritarren arteko ahozko harremanetan euskara asko erabiltzen bazen ere, idatzizko harremanetan erdara zen nagusi. Idazkaria ere urte askoan erdalduna izan zen, eta horrek ere erabat baldintzatzen zuen udalak euskaraz funtzionatzeko aukera, bai ahoz eta bai idatziz.

Aldaketa, beraz, oso azkarra izan da, eta urte gutxiren buruan aldaketa handia sumatu da. Gaur egun alkatea eta zinegotzi guztiak euskaldunak dira, baita idazkaria eta langileak ere, eta euskaraz aritzeko erabaki sendo batek lagunduta, aurrera egin da nabarmen.

Jakina, hutsuneak ere egon badaude, batez ere kanpora begirako harremanetan. Udalak harreman eta lotura asko dauzka Aresokoak ez diren administrazioekin eta eragileekin, eta arlo horietan askoz zailagoa da euskara normaltasunez erabiltzea. Nafarroako Gobernua dugu horien guzien artean eragilerik garrantzitsuena, eta harreman horietan euskaraz funtzionatzea oso nekeza eta zaila da.



**Areso, herri euskalduna.**

Gaurko egoera zein den laburtzeko, Aresoko idazkari Ione Lazkozi UEMAren webgunean egindako elkarrizketatik hartutako galdera-erantzun bat ekarri dugu:

**Nolakoa da gaur egun euskararen egoera Aresoko udalean?**
Gaur egun, Aresoko udalak euskaraz funtzionatzen du. Harrera euskaraz izateaz gain, batzarrak euskaraz egiten dira. Herritarrekiko harremanak ere euskaraz izaten dira kontrakorik eskatzen ez duten bitartean. Kasu horietan, harremanak elebitan izatea bermatzen dugu. Barne mailan euskaraz funtzionatzen dugu, naiz eta legeak behartuta, hainbat espediente elebitan egin behar izaten diren; zerbitzuak ematen dizkiguten enpresak euskaldunak izaten saiatzen gara, aresoarrei beren hizkuntza eskubideak errespetatuko zaizkiela bermatzeko. Eta udal langileen kontratazioetan ere datozen langileak euskaldunak izateko baldintzak ezarri ditugu."

Esan bezala, hutsune batzuk badaude, irabazi beharreko espazio batzuk ere bai, baina bistan da euskara dela Aresoko Udaleko hizkuntza nagusia eta bide horretan urrats sendoak eman direla. Bost urte barru ere, gauzak ongi joanez gero, balantze positiboa egiteko moduan izanen gara.

UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

### UEMAREN HELBURUAK

1. Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
2. Udalerri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea.
3. Udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.

# GARAI BATEKO ARESO

**Pasa den zenbakian izan zuen arrakasta ikusita argazki zahar gehiago bildu ditugu. Batzuk 100 urte atzeragoko argazkiak dira, beste batzuk beranduagoakoak. Hala ere guztietan garai bateko Areso ikus dezakegu, batzuetan jendea eta besteetan lekuak. Denbora ez da alferrik pasatzen!**



Ingurutxoa dantzatzen.



1899-03-01. Ahari apustua Aresoko plazan.



1897-10-31 Martiñoneko estarta, Erasonea etxea egiten ari dira.



1970. urte ingurua. Herriko mutil koadrila hondartzan, sasoi eta giro ederrean.



Prozesioa herrian barrena.









1950. urte inguruan. Emakumeak paseoan eta gizonak atseden hartzen, tertulian.



1966 inguruan. Patxikuneko dantzaldia.



Nesken eskola.



1975. urte ingurua. Festetan soka tiran.



Mutilen eskola.

# APUSTUAK ARESON

**Hurrengo orrialdeetan Areson herritarrek beren artean egin izan dituzten apustuetako batzuk agertzen dira, baita anekdota batzuk ere. Garai batean tabernan, Zubidin gehienetan, trago batzuekin berotu ondoren apustu asko egiten ziren, momentuko apustuak. Bururatu eta orduantxe egindakoak! Horrelakoak eta bestelako apustuak dituzue jarraian.**

***Kontalariak: Ramon Etxarri Belakukoa, Jose Ramon Etxarri Garrokoa, Joxe Martin Onsalo Juantonea bordakoa, Jose Saizar Otxon txikikoa eta Miguel Zabaleta Etxe-Txikikoa.***

Gau batean Zubidin trago batzuk egin ondoren indarrak probatu nahian apustu bat atera zen. Ramon Belakukoa alde batetik eta Autzeneko Bordako Mieltxo bestetik. Egin beharreko lana Patxikunetik hasi eta bidegurutzera korrika joan etorria egitea zen. Noski, gaua zenez ilun zegoen eta bakoitzak laguntzaile bana hartu zuen: Ramoni Ubideko Patxik lagundu zion eta Mieltxori Autzeneko Tomasek. Horietaz gain inguruan jende gehiago ere bildu zitzaien laguntzera, haien artean baten bat moto zahar batekin argia egiten ere aritu omen zitzaien.

Ramon bidegurutzera bost minutuan joan zen, eta Mieltxo jarraian, baina itzuleran Mieltxo bete egin zen eta horrela esaten omen zion Tomas laguntzaileari:

*-Hi, nik ezin dit gehio!*

Tomasek orduan horrela erantzun:

*-Gehio ezin baek etzan hai ordun bide bazterren!*

Eta hantxe bota zuela bere burua. Jendeak hori ikusita Ramoni lasai joateko esaten omen zion, ez zuela presarik, baina Ramonek ezetz, berari berdin zitzaiola eta bidegurutzetik Patxikunera sei minututan itzuli omen zen. Tartean Fraskuneko Gregorio eta Txilleneko Bordako Julian Patxikunean apustulariei itxoiten zeuden, horiek beren artean apustua eginda: 20 duro jokatu zituen bakoitzak, Gregoriok Mieltxoren alde eta Julianek Ramonen alde. Apustua amaituta Julianek 20 duroak irabazi zituen eta horren ondoren Zubidin guztiak zerbait jaten ari zirela Ramonek kafea eskatu eta Julianek kopa ordaindu omen zion, beregatik 20 duro irabazi zituelako.

Beste behin herriko bost bat gazte plaza zaharrean elkartu ziren. Apustu hau egin zenean Polañeneko Batiste zena omen zen herriko alkate eta festa aurrea zen. Gazte haiei apustua egin behar zutela bururatu zitzaien: hamabi buelta egin behar zituzten korrika honako ibilbide honetan: Plaza zaharretik hasi, Polañeneko baratzaren atzetik Apezene atzetik igo, Ollenetik behera jaitsi, Ategorritatik pasa eta berriz karnizerira. Hori egitera animatu ziren, besteak beste, Pedroneko Bordako Ramontxo, Alkotzeneko Jabier zena, Jose Onsalo eta Ramon Belakukoa. Hainbesteko saiakera egin zuten non Pedroneko Bordako Ramontxo mareatu eta botaka eta guzti aritu omen zen.

Hamabi bueltak aurrena bukatu zituztenak Ramon Belaku eta Jose Onsalo izan omen ziren eta justu biak batera iritsi. Horrela ezin zirela geratu eta karnizeritik Zubidiko atarira jaitsi ziren korrika jarraian. Eta orduan bai, orduan Ramon lehenago iritsi omen zen eta berrogei duro irabazi zituen. Diru guzti horiekin festa guztietarako dirua izan omen zuen.

Parrandaren batean goizeko ordu biak aldera Leitzatik etorri omen ziren Aresoko gazte koadrila bat eta Pake-Toki elkartean geratu omen ziren guztiak. Hizketan hasi eta Jose Ramon Garrokoak soziedadetik bertatik hasi eta Martiñoneko Bordara joan etorria egingo zuela esan zuen, hamahiru minutuan! Hasi zen bada korrika, Martiñoneko Bordara igo, atea ikutu eta berriz buelta Pake-Tokira. Igoera zazpi minututan egin omen zuen eta jaitsiera bost minutuan.

**Pake Toki elkartea.**





**Martiñoneko borda.**

Eguna ilunduta herriko gizonak Zubidira atera ziren beste egun batean, eta trago batzuk eginda jendea apustuak egiteko indarrean agertu zen berriz ere. Matias Saizar zenari proposatu zioten apustua: eskuak erabili gabe hortzekin bakarrik ezetz 50 kiloko zakua hartu eta altxatu. Horretarako pulpa zaku bat hartu eta harriz bete zuten.

Ondoren Patxikunean pisua zegoela eta zakua hara eraman zuten zenbat kilo zituen ikusteko, eta asmoa 50 kiloko zakua egitea bazen ere ezin osatuz bi gehiago pisatu zituen. Berriz Zubidira itzuli eta Matias trago batzuk eginda bazegoen ere halaxe egin omen zuen: eskuak belaunetan jarri, makurtu, hortzekin bakarrik lurrean zegoen zakuari heldu, altxatu eta mahai gainera igo. Jokoan apustua egin zuten guztientzat afaria ordaintzea zen. Eta horrelaxe apustua irabazi zuen, hain juxtu Matias hil aurreko neguan egindako apustua.

Honako apustu hau Ramon Belakuk eta Patxikuneko Manuelek egin zuten. Manuel Joantoneko ardi bordatik abiatu behar zen eta Ramon Belakutik. Biak korrika Zubidira ea zein lehenago iritsi, hori zen apustua. Manuel abiatzerako Ramon jada Olatxetako granjan omen zen eta errez iritsi zen lehenago Zubidira.

Iruñegiko aitonak izugarrizko sasoia omen zuen eta berak bakarrik bizkarrean 80 kiloko zakua hartu eta Tolosatik oinez Gaztelutik barrena Aresoraino ekarri eta Iruñegiraino eraman omen zuen. Beste behin, berriz, Atxuleiko zuloan gurdiaren pertika bizkarrean hartu eta etxeraino igo omen zuen bakar bakarrik.

Garai batean Aresoko herritar eta Aresoko baserritarren arteko apustua ere egin zen. Herritarren ordezkari gisa Santuruko Juanito eta Analdeko Fraxku animatu ziren apustua egitera, baserritarren ordezkari gisa, berriz, Garroko Txeli eta Juantoneko Xantux.

Korrika apustua egin behar zuten, erreleboka. Peuneko zubitik hasi ziren Txeli (baserrikoa) eta Juanito (herrikoa), Leitzako Astibiraino joan eta han txanda egin behar zuten Xantux (baserrikoa) eta Fraxkurekin (herrikoa).

Horrela, bada, Txeli hasi zenean bentaja kendu omen zion Juanitori, baina Astibin txanda egin ondoren Fraxkuk Xantux harrapatu zuen. Patxikune atarian, helmugan, jende asko zegoen, herritar asko animatzen eta biak oso parekatuta iritsi ziren. Azken momentuan animatzen zegoen jende multzo batek Xantuxi bultzatu egin omen zion eta horrela hura lehenago iritsi eta irabazi egin zuen. Ondoren batzuk haserretu egin ziren baserritarrek tranpa egin zutela esanda.

Garroan errementeria zegoen garaian, Xerapio Alustiza ibiltzen zen bertan errementari lanetan, eta oraindik ere Garroan dagoen ingudearekin nahikoa saltsa jartzen zuten herrian. Ingude horrek 108 kilo ditu eta herritar asko bertara joaten ziren ingudea altxatzen probatzera. Patxikuneko Txaus zena, Xerapio bera, Txuineko Martin, Santuruko Juanito, Juantoneko Bordako Juanito, Boneneko Joxe Mari… Esaten dute Gorrititik eta inguruko herrietatik ere jendea etortzen zela proba egitera. Xerapio zenak izugarrizko indarra omen zuen eta horrek bai, altxatzen omen zuen. Santurun zegoen beste harri trakets batekin antzekoa gertatzen zen, jendeak saiatu nahi eta ezin, eta harri hori ere Xerapiok altxa omen zuen. Hala ere ingudearen kasuan esaten denez, nahiz eta saiatu Santuruko Juanito eta Txausek ezin izan zuten inoiz altxa.



**Garroko ingudea.**

Egun batean Jose Ramon Garrokoak ere altxatu omen zuen. Gazte zela, 17 urterekin ingudea altxatzera ausartu zen eta baita altxa ere, baina ingudea lurrera botatzerakoan lur guztia burdin pusketaz beteta zegoen eta burdin zati batek kopetan jo zion eta odoletan utzi.

Areson jada oso ezaguna den Aresoko harriarekin egindako apustuak ere badaude. Festa aurre batean Eugeniok trago batzuen ondoren Zubidin apustua onartu zion Pontziori. Honek Aresoko harria ezetz altxa proposatu zion eta jokoan Eugenioren behia jarri zuten. Egin beharreko lana hauxe zen: Eugeniok hiru minutuan hamabi altxaldi egin behar zizkion 194 kiloko harritzarrari. Oso larri ibili bazen ere hamaika altxalditan geratu zen eta ez zuen apustua irabazterik lortu. Ordainetan Pontzio Eugenioren behiarekin geratu zen.




Beste festa batzuetan bi harrijasotzaile profesional ekarri zituzten herrira, Aresoko Harria izenez ezaguna den harri handi bat altxatzeko. Harrijasotzaileak Ostolaza eta Goenatxo izan ziren, eta Ostolazak bi aldiz altxatu zuen harria, Goenatxok berriz behin.

# ARESOKO ONDAREA

**Pasa den abenduan udalak argazki lehiaketa antolatu zuen Areson, gure ondare ezberdinak aurkitzeko helburuarekin. Gero Euskararen Egunean argazki guztiekin erakusketa egin zen udaletxean, baina orduan ikusi bagenituen ere, ikusteaz gain paperean gorde nahi izan ditugu, batez ere desagertzear dauden gauzak edo guretzat bereziak direnak. Hemen duzue gure laburpentxoa:**



**Alkotzeneko bordako atea.** Ate hau zotzez eginda dago, eta leihoak ere horrelakoak ditu. Gaur etxeetan tabikeak erabiltzen ditugun bezala, garai bateko "tabikeak" zotz hauekin egiten ziren, zotzei bi aldeetatik karea emanda.
Egilea: Juana Mari Saizar



**Ataka langabaraz osatua.** Garai batean horrelako atakak izugarri ikusten bagenituen ere orain metalezko materialarekin egindako atakak ikusten dira gehienbat, eta pixkanaka egurrezkoak desagertzen ari dira. · Egilea: Uxue Goikoetxea







**Santuruko karobizuloa.** Karobizulo hau Errandoneko Bordaren ondoan dago, eta sasiak eta belarrak hartua badago ere egoera onean dago. Hau da Areson ditugun karobizulo ugarietako bat. · Egilea: Eden Algero



**Maingoneko borda.** Argazki honetan leihoa eta atea atalgainarekin ikus daitezke. · Egilea: Uxue Goikoetxea

**Santa Kruz ermita.** Lehengo ermita zaharra dugu hau, Ulizarren kokatzen zena. Orain aztarnak geratzen dira. · Egilea: Eden Algero.





**Ogia egiteko labea.** Garai batean etxe gehienek beren ogia egiten zuten eta horrenbestez etxeari itsatsita labe asko zeuden, orain gehienak desagertu badira ere. Bi forma izaten zituzten: borobilak eta laukiak. Honako hau borobila da eta Bordan bordan dago. · Egilea: Igone Goikoetxea

## argazkiak



**Mugarria.** Garai batean herriko terreno partikularrak eta komunalak harri hauekin bereizten ziren. Mugarri hauek alde batetik P letra dute idatzita (Partikularra) eta beste aldetik C letra (Komunala). Zehazki mugarri hau Alkotzeneko borda atarian dago eta P letra ikusten zaio. · Egilea: Juana Mari Saizar



**Otsaidako Borda.** Areson dauden borda ugarietako bat da hau, oso ederra eta egurrezko sabaia osorik duena.
Egilea: Uxue Goikoetxea



**Bordan bordako aska.** Herrian geratzen diren asken artean hau Bordan borda ondoan kokatuta dago. Oraindik nahikoa osoa dago eta ur emari handiarekin. · Egilea: Toribio Gereño



**Oilo txabola.** Ogia egiteko labea bezalaxe oilo txabolak ere oso ohikoak ziren. Batzuk etxeari itsatsita egoten ziren eta beste batzuk etxe inguruan edo mendi aldean aurki zitezkeen.Hauetako gehienak gaur egun ez dira mantentzen eta asko erorita daude. Hau Bordan bordan dago. · Egilea: Ana Goñi





**Ardien eskortea.** Eskorte hau Otxoneko galekutik gorago igota dago. Hemen ia aztarnak soilik ikusten badira ere, lehen ardiak mendian bildu eta eskorte hauetan sartuta jezten zituzten. Egilea: Zuriñe Goikoetxea





**Antzolako leizea.** Argazki lehiaketa irabazi zuen argazkia duzue hau. Leize honek dituen bi geletako bat ageri da bertan. Egilea: Eden Algero



**Leihoa.** Arreta jarriz gero, Areson leiho mota asko dagoela ikusiko dugu. Honako hau burniekin osatutako leihoa dugu. Egilea: Juana Mari Saizar



**Udazkena.** Ondareen artean Aresoko paisaia ederraren hainbat argazki atera ziren lehiaketarako. Hemen duzue gure naturaren zati txiki eta polit bat. · Egilea: Ane Baraibar



**Bunoko atea.** Ate honen berezitasuna egurrezko leihoa da, eta iltze handi askoz betea dago.Inguruan harriekin osatutako arku ederra dauka. Egilea: Ane Baraibar

# ARESO, HERRI KOMUNIKATUA

Agian denek jakingo ez duzuen arren, historian zehar Aresoko herria bere kokapenagatik oso ongi komunikatuta egon da. Autobia egin aurretik hainbat urtean erabiltzen ziren garraio mota asko Aresotik pasatzen ziren. Garraio mota zaharrenetik hasita guztiak azalduko ditugu erreportaje honetan.



Argazki hau gaur egungoa da. Bidea mantendu egin da eta orain mendi bide hutsa besterik ez da. Argazkia Ulizarko parajean aterata dago.

## 1. CRP, Probintzietako abelbidea

Nafarroak aspalditik abelbide sare garrantzitsuak izan ditu. Artzainek ibilbide hauek beren ardi, ahuntz edo behiak udaran mendiko larreetatik neguko Erriberako larreetara garraiatzeko erabiltzen zituzten.

Nafarroak izan dituen abelbide horietako garrantzitsuenetako bat CRP edo Probintzietako abelbidea bezala ezagutzen da. Ibilbide hau Noainen hasten da eta Iruñerria, Imotz, Basaburua, Larraun eta Areso zeharkatuz Azpeitian bukatzen da.

Aresotik pasatzen den abelbide hau **zezenen abelbide** bezala ere ezagutu izan da. XVI. mendeaz geroztik Nafarroa erditik Azpeitia eta Debara zezenak eramateko erabili izan da. XVI. eta XIX. mende bitartean Gipuzkoan ospatzen ziren zezenketa guztietako zezenak bide hau erabiliz eramanak izan ziren.



“Dilijentziza”, argazkian Leitza-Areso-Tolosa izenak irakur daitezke.

## 2. Errege-bidea eta diligentziak

Iruñetik Tolosarako errege-bidea XVIII. mende bukaeran sortu zen. Bide horrek Nafarroa eta Gipuzkoako hainbat herrietako bizimodua aldatzeaz gain, komunikazioen iraultza ekarri zuen.

XVIII. mendean herrietako biztanle gehienak ez ziren beren bizitokitik mugitzen. Bidaiatzeko aukera zuen gutxiengo horrek, bere klase sozialaren arabera, oinez edo zaldiz egiten zuen. Errepideen sorrerarekin lau gurpiletako ibilgailuen garraioa ahalbidetu zen.

Penintsula iberikoan egin ziren aurreneko errepideak gure inguruan egin ziren; **Gaztelako Errege Errepidea**, Madrid eta Irun lotzen zituena, 1780. urtean sortu zen. Errepide horri lotuta, Nafarroa Tolosarekin lotzen zuen errepidea 1793. urtean egin zen. Hori dela eta Frantziara diligentzian joan nahi zuen edozeinek nahitaez gure ingurutik pasa beharra izaten zuen.

Garai haietan bi garraio-ibilgailu zeuden, alde batetik **diligentziak** eta bestetik **galerak**.

Diligentziak pertsona aberatsek erabiltzen zituzten, langile normal baten urtebeteko soldatarekin bost kilometro besterik ez zitezkeen egin. Garraio bide hau azkarra izan arren Iruñetik Tolosara joateko 12 ordu behar izaten ziren. Galerak, ordea, oso motelak ziren eta ondasunen garraiorako erabiltzen ziren. Hala ere, pertsonak garraiatzeko ere erabiltzen ziren, izan ere diligentzia ordaindu ezin zutenek ez zuten beste aukerarik eta oso deserosoak izaten ziren.

Errepide hauek ongi mantentzeko, 3 kilometrotik behin errepidea ongi mantentzeaz arduratzen ziren langileak egoten ziren. Ibilbideak luzeak izaten zirenez, herri guztietan herriarenak ziren bentak sortzen hasi ziren. Benta horietan lotarako lekua eskaintzeaz gain pertsona eta animaliei jaten ematen zitzaien. Iruñetik Tolosarako errepidean 27 benta egon ziren.

Bide hau eraikitzeak kostu handi bat eragin zuen eta horregatik Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioek pertsona, ibilgailu, animalia eta ondasunak garraiatzeagatik bidesariak kobratzen zituzten. Baina bidesari horiek saihesteko asmoan bestelako negozioak sortu ziren, kontrabandoa hain

zuzen ere. Larraun, Leitza eta Areson kontrabandoak garrantzi handia hartu zuen, izan ere herri hauetako jendeak inguruko erdi aroko bide eta galtzadak ongi ezagutzen zituenez, bidesariak saihestea lortzen zuten. Garai hartako Errege Bidea denborarekin Errepide Nazionala bihurtu zen.

## 3. Plazaola trenbidea

1902. urtean bide estuko trenbidea eraikitzen hasi ziren. Hasiera batean Plazaolako meategiak ustiatzeko helburuarekin sortu zen eta Plazaola eta Andoain lotzen zituen. 1914. urtean trenbidea Iruñea eta Donostiara luzatu zuten eta horrela trena bidaiariak garraiatzen hasi zen. Trenbide honek 40 urte iraun zuen eta Nafarroa eta Gipuzkoako merkataritza eta komunikazio bide garrantzitsuena izan zen.

Trenbidearen ondorioz herri askotako bentak desagertzen joan ziren baina bestelako onurak ere ekarri zituen. Esaterako, goi burgesiak Lekunberriko Ayestaran Hotelean edota Beteluko bainuetxean udara pasatzera etortzeko ohitura hartu zuen.

Trenbidean zehar ondorengo tren geltokiak egon ziren: Iruñea, Aizoain, Sarasa, Gulina (geralekua), Irurtzun, Latasa, Lekunberri, Uitzi, Leitza, Areso (geralekua), Plazaola, Ameraun (geralekua), Olloki, Andoain, Lasarte (Bilbo eta *Ferrocarril Vascongado*rekin lotzen zen), Añorga eta Donostia (Amara).

Hasiera batean trenak 3 joan-etorri egiten zituen egunean, baina azken urteetan bi joan-etorri egiten zituen bakarrik. Gainera Iruñetik Donostiara iristeko 3 ordu eta 3 laurden behar ziren.

Trenbide hau sekula ez zen errentagarria izan. Meategiak ustiatzeko asmoz sortu zuten arren oso urte gutxira meategien ustiatzea gelditu egin zen. Horretaz gain, 1953. urtean uholde baten ondorioz zubi batzuk erori ziren eta ordurako sortzen hasi berriak ziren autobus linea berriekin ezin izan zuen lehiatu. 1958. urtean burdinbideak kendu zituzten.

## 4. *Aresoarra* autobusa

*Aresoarra* autobusa Iruñera zihoan eskualdeko autobus bakarra zen, hasiera batean Aresotik Iruñerako bidea egiten zuen eta ondoren linea handitu egin zuten. Linea hau Gregorio Urrutiak erosi zuen (Zubidiko Eufemia Arraiagoren gizonak) eta orduan Doneztebetik hasten zuen bidea eta Malerreka guztia zeharkatuz Areso eta Leitzatik barrena Iruñera iristen zen. Eta gero berriz bueltan ibilbide berdina egiten zuen. Hau zen, hain zuzen, bidean zituen herri guztiek zeukaten garraiobide publiko bakarra. Gainera egunean bidaia bat soilik egiten zuen eta horregatik beti jendez gainezka joaten zen. Jendea behean esertzen zen eta goian fruta barkak, ikatza… garraiatzen zituen. *Aresoarra* autobusagatik gure herriaren izena asko zabaldu zen garai hartan, herri guztietan ezaguna baitzen.

Aresoarra Autobusak urte dezente lan egin zituen, baina azkenean autobus linea saldu egin zuten. Gaur egun autobus linea hori Mariezcurrenak burutzen du.



**Plazaolako trena.**



***Aresoarra* autobusa Iruñako Salesianotan. Erabiltzeari utzi ziotenean bertara eraman zuten eta ikasleek praktikak egiteko erabili zuten.**

## 5. A15 Autobidea

80 hamarkadan Iruña eta Donostia lotuko zuen autobidea egiteko asmoa agertu zen. Ibilbide desberdinak proposatu ziren, eta azkenean gure herritik pasatzen zen ibilbidea aukeratua izan zen. Hasiera hartan ingurumen naturalean egingo ziren kalteengatik autobidearen kontrako mugimendu asko agertu ziren arren, autobidea 1995 urterako bukatu zuten. Orduaz geroztik Areson aldaketa asko etorri ziren, bai ingurunean, bai ohituretan, bai bizimoduan, bai lasaitasunean. Hala ere esan beharra dago autobideari esker Iruña edo Donostiatik gertuago gaudela, eta artikuluan aipatu ditugun komunikabide desberdinekin alderatuz bertara iristeko askoz denbora gutxiago behar dugula.

# ARESOKO ETXEEN IZENAK

Denboran barrena Aresoko etxeen izenak nola aldatu diren jakin nahi izan dugu, eta horretarako zenbait urtetako etxeen zerrendak hartu eta taula hau osatu dugu. Lehen zerrenda frantsesek Areso erre zuten urtekoa izan da, 1792.urtekoa.

Zerrenda gehienak elizako liburuetatik hartuta daude, eta beste batzuk udaletxetik. Batzuk orain ez dira bizitza etxeak, hutsak daude, beste batzuk desagertuta, eta hala ere zerrendan ez daude etxe izen guztiak. Zerrendari jarraitzeko irizpidea hartu genuen, eta zerrendetan idatzita dauden bezala idatzi ditugu.

Horretaz gain herriko zaharrei galdetuta ere informazioa lortu dugu eta oso baliagarria izan da etxe izenak nola aldatu diren, non dauden eta nola deitzen zioten jakitea.

Beraz, eskerrak eman laguntzen aritu diren guztiei eta, ustez etxe izen guztiak ongi dauden arren, norbaitek informazio zehatzagoa nahiko balu begira dezala elizako zerrendetan, bertan egongo dira erantzunak.



Aresoko etxeen izenak, 1792ko dokumentu batean.





Fraskuenea.

## ARESOKO ETXEEN IZENAK

| 1792.URTEA | 1852.URTEA | 1900.URTEA | 1948.URTEA | 2013.URTEA |
|---|---|---|---|---|
| Casa Parroquial | Casa Parroquial | Casa parroquial | Apecechea | Eliz Etxea |
| Casa Abacial | Casa Abacial | Casa Abacial | | |
| | | Casa Seroral | Echechuria | Etxetxuria |
| | | | | Leku Eder |
| | | | | Ekhi |
| | | | | Astibiatar |
| | | | | Etorki |
| | | | | Ixpuru |
| Errandonea | Errandonea | Errandonea | Errandonea | Errandonea |
| Mariñenea | Mariñenea | Mariñenea | Mañenea | Mañenea |
| Azpicoechea | Estebanenea | Estebanenea | Azpicoechea | Azpiko-etxea |
| Juantonea | Juantonea | Juantonea | Juantonea | Juantonea |
| Alpaitenea | Alpaitenea | Alpaitenea | Alpaitenea | Alpaitenea |
| Errementaldeguia | Errementaldeguia | Errementaldeguia | Errementaldegia | Errementaldegi |
| Eguaguirre | Eguaguirre | Eguaguirre | Ebarrea | Eguarrea |
| Garro | Garroa | Garroa | Garroa | Garroa |
| Arocenea | Arocenea | Arocenea | Aritzenea | Autzenea |
| Semero garaicoa | Semeroa Garaicoa | Semero Garaicoa | Semeroa | Semero goikoa |
| | Semeroa Azpicoa | Semero Azpicoa | Semeroa zarra | Agustinazar |
| | | | | Bi ahizpak |
| Telequiñenea | Tellequiñenea | | | |
| Arraiago | Arrayagoa | Arrayagoa | Arrayagoa | Arraio |
| Ustaquiñenea | Ustequiñenea | Ustaquiñenea | Ustaquiñenea | Ustakiñenea |
| Santuru | Santuru | Santuru | | |
| | Tolare | Tolare | Santiagoenea | Fraskuenea |
| Arrachipi | Arrachipia | Arrachipia | Casa Consistorial | Herriko etxea |
| Bonenea | Bonenea | Bonenea | Bonenea | Bonenea |
| Echezarra | | | | |
| Echezarrachiquia | | | | |
| Bunoa | Bunoa | Bunoa | Bunoa | Bunoa |
| | | | Ugaldenea | Ugaldenea |
| Orillenea | Orellenea | Orellenea | Ollenea | Ollenea |
| Zugarocenea | Zugarocenea | | | |
| Ozondo | Otzondo | Otzondo | Otzondo | Otzondoa |
| | | | | Bide-ondo |
| | | | | Alustizanea |
| | | | | Mendialdea |
| Apecenea | Apecenea | Apecenea | Apecenea | Apezenea |
| Ochonea | Ochonea | Ochonea | Ochonea | Otxonea |
| Ochonechiquia | Ochonchiquia | Agenechiquia | Ochonchiquia | Otxon-Txiki |
| Axenea | Ajenea | Agenea | Axenea | Axenea |
| Martiarragenea | Martiarragenea | Martiagenea | Panaderia | Panaderia |
| | | | | Gure txokoa |
| Pulaquiñenea | Puleguiñenea | Puñalguiñenea | Polallenea | Polain-enea |
| Maringonea | | | | |
| Martiñonea | Martiñonea | Martiñonea | Martiñenea | Martiñonea |




Errandoneko borda.

Polainenea borda.







Anosenea.

## ARESOKO ETXEEN IZENAK

| 1792.URTEA | 1852.URTEA | 1900.URTEA | 1948.URTEA | 2013.URTEA |
|---|---|---|---|---|
| Loidi Maior | Loydi | Loydi | Loidi | Lobidi |
| Loidi Menor | Loydi | Loydi | Loidi | Lobidi |
| Francisquenea | | | | |
| Mogondo | | | | |
| Echeverria abajo | Echeverria | | | |
| Casa Concejo | Concejo | Consejo | | |
| Errementaldegui menor | Rementaldegui azpicoa | | | |
| Chillenea | Chillenea | Chillenea | Chillenea Chiqui | |
| | | Erasonea | Erasonea | Erasonea De la Mataenea |
| Sagastinea | Sagastinea | Sagastinea | Sagastinea | Sastinea |
| Larrea | Larrea | Larrea | Larrea | Larrea |
| Echeandia | Echeandia | Echeandia | | |
| | | | Chalet | Palazio |
| Zapatarinea | Zapatarinea | Zapatainea | Zapatainea | Zapaitenea |
| Urzallenea arriba | Urcellenea garaikoa | | | |
| Urzallenea abajo | Urcellenea azpikoa | | | |
| Manterola maior | Manterola garaikoa | Manterola | Manterola | Manterola |
| Manterola menor | Manterola azpicoa | Manterola chiquia | | |
| Barberonea | Barberonea | Barberonea | Barberonea | Barberonea |
| Ubidea | Ubidea | Ubidea | Ubidea | Ubidea |
| Alcoz | Alcoz | Alcoz | Alcoz | Alcoz |
| | | | Casa del maestro | Eskol-etxea |
| | | | Casa de la maestra | Eskol-etxea |
| Perunea | Perunea | Perunea | Perunea | Peunea |
| Zubidi | Zubidi | Zubidi | Zubidi | Zubiri |
| | | | Pachicuenea | Patxiku-enea |
| Osobiaga aca | Osobiaga azpicoa | Otsabiaga | Otsabiaga | Otxaide-enea |
| Osobiaga alla | Osobiaga goicoa | Otsabiagaca | | |
| | | | | Ibaialde |
| | | | | Nieto enea |
| Marticonea | Marticonea | Marticonea | Marticonea | Martikonea |
| Lazcanonea | | | | |
| Ansonea | | | | |
| Echachiquia | Echachiquia | Echechiquia | Echechiquia | Etxetxikia |
| Izarteguia abajo | Izartegui | | | Izartegia |
| Izartegui arriba | | | | |
| Telleri | Telleri | | | |
| | | | Julianenea | Julianenea |
| Orijenea | Orejenea | Orejenea | Orejenea | Oxenea |
| | | | Eguialdea | Egi-aldea |
| Aranaldea | Aranaldea | Aranaldea | Aranaldea | Analdea |
| Echeverria arriba | Echeverria | Echeverria | Echeverria garaicoa | Etxeberria |
| | | | | Eguzki-alde |
| Urquiola | Urquiola | Urquiola | Urquiola | Urkiola |
| Aragonesenea | Aragonesenea | Aragonesenea | Anosenea | Anosenea |




Otzondo.




Garaikoetxea.




Ustakiñenea.

| ARESOKO BASERRIEN IZENAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1792.URTEA** | **1852.URTEA** | **1900.URTEA** | **1948.URTEA** | **2013.URTEA** |
| Lili | | | | |
| Choanenea | Choanenea | Ochobanenea | Guereñonea | Gereñonea |
| Alcoz | Alcoz | Alcoz | Alcozco borda | Alkozko borda |
| Pedronea | Pedronea | Pedronea | Pedronea | Pedronea borda |
| Machindinea arriba | | | | |
| Machindinea abajo | Machandinea | Machandinea | Machandinea | Matxandinea |
| Marticenea | Marticenea | Marticenea | Marticenea | Felipe borda |
| | Luisenea | Luisenea | Iruñegi borda | Iruñegi |
| Molino | Molino | Molino | Molino | |
| Ibiur | Ibiur | Ibiur | Ibiur | Ibiur |
| | Domingonea | Domingonea | Domingonea | Sutegi |
| | Teleguiñenea borda | Teleguiñenea | Teleinchonea | Telentxonea |
| | | Chillenea borda | Chillenea borda | Txillenea |
| | | | | Lizardi |
| | | Ascensionea | Acenciñea | Azinzene |
| Semero abajo | Semero becoa | Semeroa | Semeroa | Semeroa |
| | Echeverria borda | Echeverria | Echeberria | Etxeberri borda |
| Machingonea | Maringonea | Maringonea | Maingonea-borda | Maingonea borda |
| Pitorenea | Pitorenea | Pitorenea | Pitorenea | Pittonea borda |
| | | | | Jaureginea |
| La casa de borda | Urcellenea | Bordan borda | Bordan borda | Bordan borda |
| | | Alchonborda | Alchonborda | Alchonborda |
| | | | | Kortatu |
| Olaechea azpicoa | Olaechea azpicoa | Olacheta | Olacheta | Olatxeta |
| Olaechea garaicoa | Olaechea garaicoa | Garaicoechea | Garaicoechea | Garaicoetxea |
| Arocenea borda | Arropenea | Alcocenea | Alcocenea | Alcocenea |
| Ferreria | Ferreria | Ferreria | | |
| | | Arrichipia | Arrichipia | Arritxipia |
| | | Belacu | Semero belacu | Belaku |
| | Semero goicoa | Semeroa | Semeroa Garaicoa | Semero borda |
| Eguaguirre borda | Eguaguirre borda | Eguaguirre | Ebarrea borda | Eguarre borda |
| | Puleguiñenea borda | Puñalguiñenea | Polallenea borda | Polañene borda |
| Garroa borda | Garroa borda | Garroa borda | Garroa borda | Garroa borda |
| Martiñoneko borda | Martiñoneko borda | Martiñoneko borda | Martiñoneko borda | Martiñoneko borda |
| Aragonesenea | Aragonesenea borda | Aragonesenea | Anosenea borda | Anosenea borda |
| Zugarocenea borda | Zugarocenea borda | Zugarocenea borda | Zugarocenea | Zuazenea |
| | Alpaitenea borda | Alpaitenea borda | Alpaitenea borda | Sastizar |
| Errandonea borda | Errandonea borda | Errandonea borda | Errandonea borda | Errandonea borda |
| Arocenea borda | Arocenea borda | Arocenea borda | Aritzenea borda | Autzenea borda |
| Juantonea borda | Juantonea borda | Juantonea borda | Juantonea borda | Juantonea borda |
| | | | | Amalur |
| Luxenea borda | Lugenea | Lugenea | Luxenea borda | Luixene |
| Thelleria borda | Telleria borda | Telleria borda | Thelleria borda | Juantonea bordan borda |
| Santurua | Santurua | Santurua | Santuru | Santuru |
| | Echeverri beicoa | Echeverria borda | Echeverria borda | Etxeberriko borda |
| | Aranaldea borda | Aranaldea borda | Aranaldea borda | Analdea borda |
| Churionea borda | Churionea | Churionea | Chuinea borda | Chuinea |

# ARESOREN ETORKIZUNA

**MILA BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO UDALERRIAK DESAGERTZEKO ARRISKU MAILAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2012 URTEA.**




Duela hilabete batzuk Gaindegiak artikulu bat argitaratu zuen non Euskal Herriko hainbat eremutan despopulatze arriskua presente dela dioen, batez ere Nafarroa Garaian. Gaindegiaren ikerketaren arabera, epe motzean joera aldatuko ez balitz, hurrengo hamarkadan Euskal Herriko 21 udalerrik desagertzeko arriskua izango lukete. Epe luzeagoan udalerri kopuru horri beste 18 batuko litzaizkioke. Azken horien artean Areso herria sartu zuten.

Ikerketa faktore jakin batzuetan oinarri dute eta faktore horiek lirateke desagertzea bultzatzen dutenak, hala nola biztanleak galtzea, bizitza-proiektua aurrera eramateko adinean dagoen biztanleriaren ihesaldia —batez ere emakumeak—, zahartze indize altua, eta amatasun indize baxua edo hutsala.

Guk, bestalde, Aresoko biztanle-kopuruaren aldaketak topatu ditugu zentsuan eta azken 100 urteetako emaitzak zein izan diren ikusi.

Horrela bada, honen guztiaren inguruan herritarrek zer iritzi duten jakin nahi izan dugu. Honatx erantzunak:

**ARESOKO BIZTANLERIA**

| 1900 | 1910 | 1920 | 1930 | 1940 | 1950 | 1960 | 1970 | 1975 | 1981 | 1993 | 2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 430 | 424 | 463 | 450 | 436 | 421 | 370 | 333 | 328 | 297 | 296 | 284 |



## ANTONIO ALUSTIZA

Estatistikak numero horiekin jaisten ari dela badio, hala izango da, berak esaten du baina nik ez dut ikusten arrisku handia duenik. Populazioa horretaraino jaitsi bada nekazaritza jaitsi delako izango da, kanpoan lana bilatu delako eta kanpora joan garelako. Nik uste nekazaritzak herrira lotzen duela eta horri eutsi behar geniokeela. Gogorra da, eta zaila dago horri eustea, baina ahal den guztian saiatu behar litzateke horri eusten. Hemen bertan gelditzeko soluzio bat hori da, nekazaritzari eustea.



## MIGEL MARI BELAUNZARAN

Lehen familiak senide askokoak ziren, nire aita-eta hamar senide ziren eta ama-eta hamaika. Behar bada hauek familia handienetakoak ziren baina horrelako asko zeuden… Ordutik jaisten joan da, seira, lau senidera… gero denbora batean haur bat, bi… eta orain ere antzeko bi-hiru senideko familiak dira gehienetan. Eta nire ustez horregatik jaitsi da biztanleria. Gainera orain etxe hutsak ere badaude, baina Aresok herriaren inguruan enpresak baldin baditu orain bezala, ez dut arrisku handiegirik ikusten populazioa gehiago jaisteko. Orain… enpresak bukatzen badira jendeak ere norabait alde egin beharko du, mugitu egin beharko du urrutiagora, eta azkenean etorriko da hemendik kanpo bizitzea. Aurrenekoak agian ez du nahiko baina azkenean gertatu daiteke. Hala ere industria gertu edukitzen badugu ez dut arriskurik ikusten.



## JOSE MARI MARZOL

Hemendik garai batean jende pila bat joan zen kanpora, Errenteriara… Gipuzkoan industria piztu zenean jendea hara joan zen, zeren hemen jatekorik ere ez zegoen. Guk gure etxean behi bat besterik ez genuen, eta horrentzat ere ez genuen egiten. Hemen artoa, babarrunak, patata… dena horrela zen. Hori orain dela 50 urte… gu joan ginenean. Eta horregatik jaitsi zen populazioa, industria kanpoan zegoelako. Gero beste gauza bat, ni orain ez nago hemen erroldatuta, egon izan naiz, baina momentu honetan nik uste Areson 280 lagun baino gehiago bizi direla, nahiz eta erroldan ez egon. Gainera Areso toki oso ona da lo egiteko, gertu dauka bai Leitza, bai industrialdeak... eta A-15arekin oso ongi komunikatuta dago.



## OLATZ BARANDARAIN

Errealitate bat da biztanleria asko jaitsi dela Areson, baina ni ez nago ados Areso desagertzeko arriskuan dagoen herri bat izan daitekeenarekin. Izan ere Areson biztanle zahar asko dago baina horri kontrajarrita ume eta gazte izugarri dago, herri aktiboa da, ongi komunikatutakoa eta beste gauza askoren artean eskola dauka.

Nik ikusten dudan arazorik handiena, gazteek herrian bizitzen gelditzeko aukerarik ez dagoela da (zeren gogoa badago), eta horregatik jendeak kanpora jotzen du bizitzera. Inguruan lana ez izateak ere eragin dezake, baina nire ustez neurri txikian, lehen esan dudan bezala herria ongi komunikatua baitago eta joan etorria egiteko arazorik ez dago.

Beraz, herriak bizirik segitzeko gazte jendeari bertan bizitzeko aukerak jartzea litzateke irtenbidea nire ustez, ahal den neurrian.



## MILAGROS CABALLERO

Nik uste Aresoko populazio hori ez dela guztiz erreala, momentu batean politika maila dela eta asko igo zen zentsua, baina niretzako benetan herrian bizi ginenak orain bizi garenaren nahiko berdintsuak gara. Nire ustez kopuru hau mantendu egingo da, zeren gazte asko dago Areson eta saiatu dira herriko ganbaratan, herriko etxeetan, belazeetan etxeak egiten… Orain gainera badago beste berrikuntza bat, proiektu bat, eta nik pentsatzen dut horrekin ere jendea gelditukо dela hemen, egiten bada behintzat. Ez diot herriari horrelako beherakadarik ikusten, eskola da beste adibide oso polit bat hori ikusteko, Areso bezalako herri txiki batean hogei eta gehiago ume izatea aberatsa da, hor beste belaunaldi bat heldu da eta etorkizuna hor dago, gazteengan.



## MIKAELA MARTINIKORENA

Orain haur gutxiago jaiotzen dira, lehen familiak handiagoak ziren, sei-zazpi senide izatea arrunta zen eta orain bi-hiru senide edukitzen dira gehienez. Gainera familiak handiak izanagatik normalean etxean bertan bat bakarra geratzen zen, beste senideak lan bila atera behar zuten eta bakoitzak moldatu beharra zeukan. Niretzat agian gehiago jaisten joango da, kanpotik jende asko ez da etorriko eta pasa den urtean zenbat haur jaio ziren? Aurten zenbat? Gehiago ez jaisteko soluzio bat etxeak egitea da, gazteak hemen geratzea eta haurrak ekartzea.



## EDEN ALGUERO

Alde batetik garbi dago gaur egun lehen baino ume gutxiago izaten direla familietan, eta horregatik biztanleriaren batezbestekoa zahartu egiten da. Gure gurasoen garaian bost anaiarreba inguru izatea ez zen batere arraroa, aldiz gaur egun gehienez jota hiru izaten dira, orokorrean behintzat.

Nire ustez larriena bertan jaiotzen direnak hemen ez gelditzea da. Hemen lanpostu gehienak industrian daude, eta enpresa askok gizonei lehentasuna ematen diete, bestelako lanak bilatzea zaila da eta askok kanpora joan behar izaten dute lan bila.

Datuak ikusita, azkeneko hiru hamarkadetan ez da horrenbesteko aldaketarik izan, nahiz eta joera jaistea den. Bestalde, bestelako interes batzuk ere badaude, instituzioetan dirua aurrezteko asmoz, hauek zentralizatu nahi dituztenak. Galera handia litzateke udalerri bezala desagertzeak, udalak herriarekiko gertutasuna galtzea ekarriko luke, eta herri txikien nortasuna disolbatzen joatea, horrek dakarren guztiarekin.

# GURUTZEGRAMA

**GOITIK-BEHERA**

1. Fanfarroi, arranditsu.
2. Leku ospela, laiotza.
3. Urteko lehen hilabetea.

**EZKER-ESKUIN**

4. Artoa, garia, irina... neurtzeko kilo eta erdi inguruko ontzia.
5. Erbinude. Bizkar arre eta sabel txuriko ugaztun txiki eta urduria.
6. Diabete.
7. Gurdibidea.




**Erantzun zuzenak:**
1. Panparrobe; 2. Eluts; 3. Ilbeltz; 4. Almote;
5. Ergonei; 6. Azukre gaitze; 7. Estrata

# LETRA ZOPA

**Aresoko etxe izenak:**

- Anosenea
- Belaku
- Ibiur
- Loidi
- Martaxenea
- Otxaida
- Pilipeborda
- Sutegi
- Txillenea
- Txurinea

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| W | M | O | E | A | Z | K | P | O | Q | C | L | E | R | H | N | I | L | E | W |
| H | N | V | W | A | N | E | B | S | Y | C | T | I | Z | B | P | D | A | K | Y |
| W | S | F | I | V | D | N | L | J | T | A | M | T | D | B | D | S | O | F | I |
| Q | Z | S | B | F | E | L | W | D | K | J | L | L | E | I | A | C | F | X | Y |
| N | X | N | X | Z | E | A | Q | B | T | G | V | J | X | D | O | J | R | X | N |
| L | Q | V | Y | J | J | I | D | H | E | A | I | B | E | V | P | L | Q | Q | X |
| K | U | Y | N | V | K | H | Y | O | V | V | N | U | L | A | E | Y | M | V | Z |
| P | R | A | L | R | O | V | K | A | A | X | M | O | O | Y | Y | X | X | D | K |
| Z | J | B | D | I | U | T | S | X | R | E | F | Y | S | Z | Q | C | Y | C | I |
| S | O | S | C | W | W | Z | M | A | Q | V | N | M | D | E | T | V | J | E | P |
| O | O | I | C | J | K | H | P | T | P | R | U | I | B | I | N | G | M | M | Z |
| N | B | J | I | U | N | D | D | X | B | O | C | R | R | X | H | E | I | J | P |
| S | U | T | E | G | I | J | H | I | W | D | W | S | E | U | F | V | A | E | F |
| P | F | B | X | M | Z | V | G | L | W | M | E | K | O | T | X | A | I | D | A |
| A | D | R | O | B | E | P | I | L | I | P | H | I | H | A | E | T | W | I | V |
| U | G | X | A | J | K | F | R | E | A | R | D | A | I | I | Y | N | Y | O | G |
| C | F | Y | R | C | X | L | S | N | A | E | N | E | X | A | T | R | A | M | V |
| Y | G | X | Y | E | V | G | Q | E | L | X | L | T | P | Q | V | Z | S | C | Y |
| R | X | Q | M | F | A | J | P | A | U | K | A | L | E | B | N | K | R | M | N |
| H | G | D | G | D | O | R | T | Z | N | H | Q | X | Z | S | U | F | G | K | W |

# HIEROGLIFIKOAK

1. Bost bat kiloko neurri-ontzia.



2. Etxe baten izena.




3. Herriko eraikin baten izena




4. Aresoko paraje baten izena.




5. Mendibide meharra.




Erantzunak:
1.- Lakarie; 2.- Izartegia; 3.- Atxonborda;
4.- Albitxuri; 5.- Txenda

# Aresoarrak setosoak omen

Goizuetarrak zapoak dira, Leitzarrak fanfarroiak eta Aresorrak setosoak! Nondik heldu da ordea Aresoarrak setosoak garelako hori? Aresoarren eskutik jakin nahi izan dugu ba ote dakigun zergatik deitzen diguten setosoak eta bildutako erantzunak dituzue hemen behean:

- Aresoarrei ideiaren bat buruan sartuz gero, gurearekin jarraitzen dugu nahiz eta beste norbait gure ideia aldatzen saiatu. Oso kaskagogorrak gara.

- Nire iritziz, herri guztiek dute nortasuna azaltzeko bide bat. Herri bakoitzak du bere izengoitia eta Aresoarrak setosoak direla esaten da berea bere dutelako eta hori gogor defendatzen dutelako. Hau da, egoskorrak eta berea defendatzen dutenak gara.

- Mundu honetan zein ez da setosoa?

- Aresoarrak gurearekin atera beharrekoak garelako gara setosoak.

- Beti "tema " edo "sesioa" daukagulako.

- Jendeari kontra egitea gustatzen zaigu, nahiz eta besteak arrazoi duela jakin ez dadila sesiorik falta! Hasieratik arrazoia ematea oso erraza da, saltsa piska bat jarri eta kontra egitea atera egiten zaigu, horregatik askotan setosoak garela esaten digute.

- Azkeneko hitza beti guk izan beharra dugu, pertsona batek esaten duenari arrazoia emanda ere askotan horrela bukatuko dugu: "bai bai, baino…"